



# BABARRUNA ETA TXERRIA FESTARAKO AITZAKI

Ibarrako Hauspibarra elkarteak antolatuta, babarrun jatea egingo dute gaur herriko plazan; eguerdian hasiko da jaia > 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2008-11-16

VI. URTEA 1.561. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



## Abel Barriolak 22-11 galdu du Olaizola II.aren aurkako partida

**LEITZA** Lau t'erdiko txapelketako finalerdia jokatu zuten atzo; goizuetarrak erraz irabazi zuen 6



Goian, Amasako Sanmartinetan atzo egin zuten asto karrera; behean, Baliarrainen egin zuten talo tailerra. EE./N.U.

## GIRO POLITA KULTUR ASTEETAN ETA SAN MARTIN JAIETAN 4,5,7



400 lagun inguruk hartu zuen parte manifestazioan. N. URBIZU

## Manifestazio jendetsua egin dute Irti Mujikaren alde

**AMEZKETA** Astelehenetik inkomunikatuta egon ostean gaur ikusiko ahalko du sendiak 6



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



## Elurra nahi, Uzturre?



### » Uzturretik

Patziku Perurena

**B**ai, badituk elurte batzuk zinez bizi ez dudala. Baina zer da, elurra? Ez al da aristokrata zahar bizartzurihura? Beti goiko baxotik etortzen zena? Guk behintzat, elur giroa sumatzean, hara begiratzen genian, sukaldeko leiho zahar hartatik. «Hara elurra azaldu da Arramaletan!» Eta ikarraz eta pozez ateratzen gintuan atarira. «Begira! Manduegin ere bai». Haiek izaten hituan gure Everest guzizkoak.

Deus bada eta, izaki noblea, elurra. Aurretik abisatzen ziguk. Arimak presta ditzagula. Engainurik gabe, bakoitzak bere hoberena

eman dezan. Ez dik Ulises apainduaren antzik. Ayas duk elurra, ia inork sumatzen ez duen Ayas hura. Eduardo Gil Berak inork ez bezala azaldu zigun Ayas noble hura.

Baina negua berez isila bada ere, eguneh buila haundiskoa sumatzen zian aristokrata zahar hark demokrata ergelon artean, eta geuregana hurbiltzeko, oraindik isilago beharrez, gaua aukeratzeko. Ederrak lagunak, elurra eta gaua. Esaiok neguari.

- Zer dakarte, bai?

- Ba, munduko gauzarik beharrenek, soilenak, nobleenak... eta denak binaka: oinazea eta poza, krudeltasuna eta maitasuna, zinezkotasun gordina eta lilura majikoa... baina denak esku zabal berean, inolako engainurik gabe, inozentzia osoarekin. Oi elurra, zeinen filosofo zuhurra! Orixek aipatzen zituen bide haiek urratzen zetik elurrik beti: iturrirakoa eta elizarakoa, gorputzerakoa eta arimarakoa, alegia. Baina, alfer alferrik. Ia inork ez dik maite elu-

rrik. Inork ez sumatzen elurraren mezu soil eta ederrik.

- Beti zortzimilik goiti dabil-tzan horiek ere ez?

- Barkatu, baina ezin diat eraman demokrata burges horien harrokeria. Elurraren iturri aristokratiko sakratua bera hankapean darabilten horiena. Naturaren edertasun bila Senda Vivara doazen fikzio kume burgesak iruditzen zaizkidak. Horiek eta eskia-tzera joaten direnek, funtsean izpiritu berbera diate. Elurra zikintzera zatozek denak, harako Eñaut Etxamendiren *Elurra Zikintzurik* hartan bezala. Elur axalean beti, itxura eta berbaro hutsean harropuztuak. Horixe baita demokraten funtsa. Senik eta barrenik eza. Horixe Obama, elur birtuala.

- Ez al zara gauzak oso estu jartzen ari?

- Aldrebes. Gogoa lasatu nahi niake. Zer da estresa, estutasuna ez bada? Eta zerk ekarri du, itxura eta engainu hutsak ez bada, eta sofistiko antzuak? Berriz esanen

diat: horra demokraziaren funtsa. Elurrak ordea, sofistiko antzu hori dena estali eta gauzarik beharrenekin uzten hau. Iturrirako hotsa ozenago aditzen. Izpiritu aristokratikoak, elurrak alegia, ez dik gauzen iturria, soiltasuna, grazia naturala besterik bilatzen. Hori gauzak estutzea bada, hik esanen didak zer den deus barrentzeko denborarik ez duen uholde demokratiko hau? Nik argi eta bero naturala maite diat. Begian eta eskuan sumatzen den hori. Eguzkiak elurrari musu ematean sortzen den urte hori. Eta ez ukitzen duen guzia lohitzeko duen demokraziaren burges hau.

- Nabari duzu atzoko herrian bizi zarela.

Atzokoan eta betikoan. Herriak eta hiriak betikoak dituk. Eta oraindik elurrak bereizten zetik, zaindari isil bizartzuri hark. Ez baita elurra baino buruzagi nobleagorik. Niri herriak erakutsi zidan elurra, hirikume bati sekulan ez bezala. Begiraiek dena gris ikusten duten horiei. Eta begira

herri zinez elurtuari: dena zuri edo beltz. Moralista zaharra duk elurra. Filosofo ergel guzien epai zuhurra. Baserritarrei askotan aditua: gorotz demokrata guziak baino hobe dela elurte aristokratiko on bat, lurra gozatzeko, gure gorputz-arimak ontzeko. Izan ere, zer duk ba elurra, izpiritu haragitu ez bada?

- Eta ba al du sexurik?

- Espero nian ergelgaldea. Bai, dena duk sexu. Dena bizi iturri. Horregatik ari dik elurra, harrien bihotzean, maiteminduen begietan. Basapiztiak ontzen. Izpiritu haragitzen. Bai, guregana ekartzen zetik elurrak basapiztiak, oinaze zaharra haragi berriren odoletza. Eta begira eguzkia eta elurra jostetan, biziaren hazia irakiten oinazearen entrainetan. Eta begira nola haragitzen den urrezko argi busti bero hori, atzera izerdia, esne, hezur muin, hazi zuri bihurtuz, bizirik bizi, gauen eta gauen mendetan. Eta biak eskutik. Gauak eta elurrak. Gordeko diate biziaren muina. Inork ez dakien leku iluna. Elurte isil zuria. Hirea, nirea. Egia gordea.

- Isilik hobe, Uzturre. Agur!

## A Argazki zaharra



## 40 urte atzera Amasako jaietan

**AMASA** • San Martin jaietan oso ohikoak izaten dira apustuak datorren astean ikusiko dugun bezala. Baina ez da, ez, gaurko kontua, tradizio handia dute apustuek, argazkietara begiratu konturatzen garen bezala. Ezkerrean 1964. urteko idi-apustuak ikus ditzakegu; goian, Garmendi baserriko Esteban Arrieta uztarriarekin lotutako idi pareari tiraka ari da. Andrategi baserriaren aurrealdea jendez beteta ageri da. Beheko argazkian, bestalde, *Eskubia* moduan ezagutzen zuten idi gorriari tiraka ari da Valeriano lartza. Dena den, idi-probez gain, bestelako apustuak ere izaten ziren, korrika apostua esaterako, eta horren adibide dugu eskubiko argazkia; 1961eko da. Lehen postuan Migel lartza ageri da, eta bere atzean, besoak zabaldua, Gazteluko Juan Ariztimuño. Badirudi, Mutio inguruan daudela. AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

# Babarrunaren Astea hastear dela nabari da larunbateko azokan ere

**Azoka** » Triangulon giro polita izan zen nagusi, Berdura plazan giro lasaiagoa; barazkien eskaintza oso zabala da.



Pasa den astean bezala, Triangulo plazan izan zen atzokoan azoka. I.T.

**PABLO ALBERDI**

Pasa den asteko aldaketaren ostean, ohiko moduan itzuli zen atzo Tolosako larunbateroko azoka. Atzokoa, gainera, hastear den Babarrunaren Astearen sarrerako modukoa izan zen, jende ugari-erantzat beharrezko hitzordu bilakatu zelarik.

Udazkeneko ohiko azoka izan zela esan behar da, giroarekin erabat bat etorriaz: goiz lainotua eta freskoa, baina euririk gabea, eta giro polita nabari ze Trianguloko postuetan. Berdura plazan, berriz, giro lasaiagoa izan zen, dagoeneko Santu Guztiaren Eguneko loreen erosketa handiak ahaiztuta, beraz.

Ezin esan dezakegu urte hau oso egokia izaten ari denik gure basoetan mikologiari dagokionez. Dena den, 200 kilo onddo inguru eskaini zituzten atzokoan, 18-24 euro bitartean. Gehienak Nafarroan hartuak izan ziren; Niskaloen eskain-

tza apalagoa izan zen, eta hauek 15 euroan saldu zituzten, ziza horiak 20 euroan, eta tronpetilak 15 euroan.

Baina benetan atzokoan nabarmentzekoa barazkien eskaintza zabala izan zen; gainera, kalitate handiaren itxura zuten. Barazkiekin batera, frutak eta lekaleak. Era askotariko sagarrak ikus zitezkeen; aurten oso ugaria izaten ari den errezil sagarretik (euro batetik 4 eurora bitartean) hasita, kanpotik datoztenetaraino, Star (2,30 euro-

an), Braeburn (2 euroan), eta beste hainbat esaterako. Gure aitnoamonek esan izan duten moduan «eguna sagar bat janez gero medikutura gutxiago joango zara». Beraz, badirudi, udazken honetan medikuek lan gutxiago izango dutela.

Neguko barazkien eskaintza oso anitza da: Bruselaza 3-4 euroan saldu zen, lonbarda 1,50 euroan, azalorea 2 euroan, romaneskua (kalitate handikoa) eta borraja 1,80 euroan, erremolatxa 1,50 euroan,

brokolia eta espinaka 0,60 euroan eta abar. Aipatzekoa da atzokoan ikus zitezkeen tamaina oso handiko porru eta azenarioak 6 eta 5 euroan, lehiaketaren batean aurkezteko modukoak ziren. Noski, prezio baxuagoan saldu ziren porru eta azenario arruntagoak. Bertako tomateak ere jarraitzen du, itxura ederrarekin. Nekazariak egiten duten lanari esker, garai hauean ere produktu hauek goza dezakegu, lehen soilik udan erabili zitezkeen. Lekaleak ezin ditugu aipatu gabe utzi. Tolosako babarruna 10-12 euroan saldu zen, babarrun txuria 10 euroan, potxak 7 euroan eta baba txiki txuriak 3,50 euroan.

## Fruitu lehorrentzat urte txarra

Bestalde, bertako fruitu lehorretan eskaintza ez da antitza, urte hau ez baita ona izan eurentzat. Hala, intxaurrak 4 euroan saldu ziren eta hurrak 2 euroan. Mizpirak e uroan eta gaztainak 2 euroan ikus zitezkeen.

Berdura plazan, berrikuntza bezala, lehen hiazintzoak ikusi ahal izan ziren, 1,5 euroan; baita, aza 1,80 euroan, Primulak 1,50 euroan, eta Ziklamenak, Azaleak, Brezoak eta Pensamientoek ere euren prezioan jarraitzen dute. Baratzeko plantulen artean tipulin txuriaren eskaintza bereziak jarraitzen du, martxoan biltzen hasteko modukoa.

## B Blogteka info

### Hitzaldia Samaniego ikastetxean

Datorren asteartean, hilak 18, fameliari zuzendutako hitzaldi bat antolatuko da Samaniego Ikastetxean; Haur Hezkuntzako erabilera antzeko gelan arratsaldeko 16:30etik 18:00etara. Hizlaria M. Jesus Uranga izango da eta jorratuko duen gaia *Autoritatea: mugak eta arauak* izango da.

### Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego/>

## E Eztabaida info

### Tolosako Corazonistas eliza botatzea onartu du Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu?

■- «Zergatik ez dute hor Kafe Antzoki bat egiten, edo auditorioaren bat? Europako leku askotan elizak horretarako erabiltzen dituzte, kanpoko itxura aldatu gabe: akustika oso ona dute gainera. Ze behar dago pixuak egiteko? Nork erosiko ditu ba?».

■- «Bilbon bezala egin behar dute eta TolosaRock bat egin, eta ez etxe garesti gehiago».

■ **Idoia.** «Ez dago etxebizitzaren beharrik, Voith saldu ezinik dabilta eta gehiago egin? Norentzat? (merkeak egingo balituzte sikiera...). Aretoak behar dira, Bonbero eta Leidorren arteko bat aproposa ikusten dut. Eta kafe antzokiarena, puntazo bat izango litzateke».

■ **Joxi.** «Eliza botatzea oso berri ona iruditzen zait, mendeetan zehar elizak herritarren kontura sekulako aberastasunak pilatu dituzte eta bada garaia lapurtutakoak itzultzeko. Elizak ez du inolaz ere laguntza publikorik jaso behar eta biziraun nahi bada, autofinantzian egin beharko du. Elizak mendeetako pribilegioei esker, herri guztietan dituzte jabetzak eta nire ustez administrazio publikoek espropiazioa erabili behar dute jabetza horiek herritarrentzat izan daitezkeen. Tolosako kasuan, herritar guztiak erabili ahal izango duten zerbitzu publikoa eraiki beharko litzateke».

## » ATZOKO AZOKA

### BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Erromeroa	4,00	6,00
Ziklamena	6,00	-
Azalea	8,00	10,00
Xarbotia	4,00	6,00
Klabeleda	2,80	4,00
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-

### BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Nikaloa	15,00	-
Mendiko angula	15,00	-
Ziza horia	20,00	30,00
Onddoa	18,00	24,00

### Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Tomatea	2,00	4,00

Porruak	1,00	3,00
Bainak	4,00	6,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00

### Barazkiak (sorta)

Roblea	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Porrua	1,00	3,00
Loloa	1,00	-
Azenarioa	1,20	3,00

### Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-
Txikoria	1,00	1,25
Trebisoa	0,90	-

### Fruta

Mizpiradia	3,00	5,00
Sagar gorria	1,50	4,00
Errezil sagarra	1,00	4,00
Pikua	4,00	-

Gaztaina	2,00	3,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

### Besteak

Arraultzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Artisau opila integrala	1,00	-
Irasagarra	3,00	6,00
Madalenak (500gr.)	3,60	-
Ogi biologikoa (500 gr.)	2,20	-
Ogi biologikoa (900 gr.)	3,20	-

### Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Ardibehigazta	11,00	-
Behigazta	7,00	7,50

### PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



# Gastronomia hobeto ezagutzeko ekitaldiak, kultur ekitaldien baitan

**Kultura** Berastegin gaztak baloratzeko oinarriak ikasi dituzte; Baliarrainen txikiak taloak egiten ikasi dute. Amezketan, zahagi ardoa izan zuten.

**NEREAURIBIZU** Kultur Asteak eta egitarau erakar-garriak prestatu eta gozatzan ari dira baita herrietan. Aza, Amezketan, Berastegin eta Baliarrainen izan zuten horretarako aukera, herri herrietan izan gozatzeko gaitasun izanik, eta beste batzuk, arretsak bezalakoak hartuz.

Berastegin izan zen egun osan zehar ekitaldiak zituena: gazta-dastatze ikastaroarekin hasi ziren eta iluntzean salda, beste eskoren artean, hartzeko aukera izan zuten.

Baliarrainen txikiak taloak ikasten jardun zuten gurazoren eta zingozaren eskutik. Talo hauek ere dastatu zituzten. Amezketan, kontzertu didaktiko bat izan zuten udaxteko garbanan eta ondoren zahagi ardoa frontoi inguruan, gero triki-poteoarekin bukatzeko.

Hala ere, atzoko Amezketako ekitaldi jendetsuena Irati Mugikaren aldeko manifestazio izan zen. Kultur Hamabostaldia otopatu gabe, manifestazio zegoen antolatua.

**Berastegin gazten inguruan**  
Berastegin atzo gaztak baloratzeko ikastaro bat izan zuten Urepel elkartean. Kasu honetan, Berastegin gazta lehiaketa irabaztu du.



Berastegin, gazta-dastatze ikastaroan 12 lagunek hartu zuten parte, Jon Aranburuaren, U. IBEROZ



Amezketan O-Hatz proiektuko saio didaktikoa eskaintzen, Ion Garmendia Ibarra eta Irati Plaza, U. IBEROZ

**DVD berria etxeko txikiak jozteko**

**PANPINAK**

DVDa (postora opari) 18€

Panpina bakoitza (postora opari) 20€

1844 oinarrizko bideoa  
900-92 00 01 edo [harpildatze@hitza.info](mailto:harpildatze@hitza.info)

hitza

- 1) **GAURKO EGITARAUAK HIRU HERRIETAN**
- Berastegin**  
 • **11:00.** Azoka, I. Ardi Txapelketa, II. Animalia Erakusketa eta Gazta Lehiaketa epalariaren artean herriko bat izango da.  
 • **18:00.** Frontoiaren talo eta gozalek eta ardo saganaren baina.
- Amezketan**  
 • **10:00.** Amezketako II. Azoka Berezia izango da plazan, 40 postu ingururekin. Gurtik amezketaren izango dira Bertan, garako barazkiak, eskulanak, gaztak, animaliak, talak... izango dira. 14:30a ingurura arte egongo da.
- Baliarrainen**  
 • **11:30.** Hamabostaldia.  
 • **12:30.** Meza Nagusia.  
 • **15:15.** Otopatu gaitzeko zerbizuko herrietarrekuzko hitaldia, Larraitz Agirerekin.  
 • **14:15.** Jubilatuen bazkaria Zaritagi jaietxean.

**Altuena**

Elizkade, 27, 48269 Amoroto (Bizkaia)  
[www.altuena.com](http://www.altuena.com)

AGRIA  
 AGRI HONEN BEZELAKO DIBANDATZALE  
 SOZIAL ENJO LANPOSTU BATZOKI  
 DEIALDIA EGITEN DA.

1. Un Merkataritza, Dena, enpresaren  
 lekuak enpresaren langile bat behar  
 baldintzak:

1. Gaitasun oso Gaitasun Laguntza  
 zuzena egiteko. 1844 izena.  
 2. Eskaria 3. Herriko eskakizuna zuzena  
 (E-U)

2. Dena zuzeneko enpresari gutuzten  
 bakoitzak, bakoitzak.

3. Aho honen enpresaren edukiz  
 4. Enpresaren 2020ko irabazirik  
 Inbertsioa, Gaitasun, Dena eta Inbertsio  
 zuzena eta 1844 izenaren enpresaren  
 zuzena eta Agria Berezia izango da.  
 1844 izenaren enpresaren  
 zuzena.

Ordez, 2020ko azararen 14an



Sara, bere aitortok taloak nola egiten dituen ikusten, U. IBEROZ

ere jo zituzten, azalpen erabilgarriak erabiltzen. Txistua eta trikitia ere erabili zituzten, eta ikasleak dastatzeko aukera izatu zituzten.

Iluntzean frontoiari zahagi ardoa zuten prestatuta, ondoren kantupoteoan aritu ziren.

Bihar izango da Amezketako Kultur Hamabostaldiaaren azkeneko eguna eta azoka ardurarikoko da hainbat ematez, hasiera bitan 40 postu inguru izango direlarik bertan eta eskaintza handia izanik.

**Baliarrainen talo usaina**  
 Baliarrainen hotzari aurre egiteko proposa izan zen ekitaldi izan zuten: atzo eguneko prestatu zuten taloak ikasteko talerra eta talo-jatea izan ziren. Guraso talde bat eta zingoziti batzuk aritu ziren txikien taloak nola egiten diren erakusten. Haurrei z zitzaizkien asko kostatu ikastea: eskuak ore-tan sartzeko prestatu zuten txikiak eta zupak.

Frontoiaren elkartu ziren. Batzuk jaietan, eta beste batzuk prestatu-talo mahain antirrua hartu eta et-

# Festa babarruna eta txerria ardatz hartuta, gaur, eguerditik aurrera

**Ibarra** Eguerdian txerriki desberdinen erakusketa eta dastatzea izango da, eta ondoren, bazkaria herriko plazan.



Pasa den urtean ere berria izan zen protagonista, U. IBEROZ

**EREDAKOIA**  
 Babarrunaren Astearen sartzear dira Tolosan, eta hainbat herrietan, bertik, txerrien inguruko jaien bitan sartuta daude. Ibarra, bi ekitaldiak hartu dituzte kontuan, eta Hauspibarra Kultur Elkarteak babarrunaren eta txerrien inguruko festa antolatu da gaurko, San Bartolome plazan.

Eguerdian hasiko da festa. 12:00etan txerriki desberdinen erakusketa hasi ahal izango da, eta ondoren hauek dastatzeko aukera ere izango da. Herriko hainbat txerrikeria eta harakin kondilaren eskuak izango da.

14:30ean Hauspibarra Kultur Elkarteak babarrunaren gaurko festa antolatu da gaurko, San Bartolome plazan.

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILKAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AGRIA  
 AGRI HONEN BEZELAKO DIBANDATZALE  
 SOZIAL ENJO LANPOSTU BATZOKI  
 DEIALDIA EGITEN DA.

1. Un Merkataritza, Dena, enpresaren  
 lekuak enpresaren langile bat behar  
 baldintzak:

1. Gaitasun oso Gaitasun Laguntza  
 zuzena egiteko. 1844 izena.  
 2. Eskaria 3. Herriko eskakizuna zuzena  
 (E-U)

2. Dena zuzeneko enpresari gutuzten  
 bakoitzak, bakoitzak.

3. Aho honen enpresaren edukiz  
 4. Enpresaren 2020ko irabazirik  
 Inbertsioa, Gaitasun, Dena eta Inbertsio  
 zuzena eta 1844 izenaren enpresaren  
 zuzena eta Agria Berezia izango da.  
 1844 izenaren enpresaren  
 zuzena.

Ordez, 2020ko azararen 14an



## «Aldaketa politikoa behar da»

**TOLOSA** » Ezker Abertzaleko kideak hiriko kaletan izan ziren atzo «autodeterminazioaren beharraz» ohartarazteko tolosarrak. Izan eren, beraien ustetan, «Euskal Herriak benetako aldaketa politikoa behar du demokraziara iristeko». Bestalde, azpimarratzen

dute egun, bizi dugun egoeran, autodeterminazioa ez dela eskubide bat bakarrik, behar bat ere badela. Aldarrikapen hauen hari-  
ra, datorren hamabostaldirako gai eta arlo ezberdinak jorratzen dituzten lau hitzaldi izango dira eskualdeko hiriburuan. E. EZEIZA



## «Herritarron ardura delako»

**ALEGIA** » Atzo Alegiako plazan 35 bat herritar inguru bildu ziren, Alegian joan den urriaren bukaeran gertatutako emakumearen kontrako eraso larria salatzeke asmoz. «Halako gertaerak daudenean herritar guztiok dugu honen ardura. Hemendik aurrera halako

erasoren bat gertatuz gero Udalak konpromisoa hartuko du gertaera hauek salatzeke, eta herritarrei ere konpromisoa eskatu nahi diegu». Aldi berean, «halako egoeran dauden emakumeei» elkartasuna azaltzeko ere bildu ziren herritarrak. N.U.

## Manifestazio jendetsua Irati Mujikaren egoera salatzeke

**Amezketak** » Familiak gaur ikusi ahal izango du presoak, astelehen gauaz geroztik inkomunikatuta egon ostean.

**N. URBIZU**

Atzo Irati Mujika preso herritarren egoera salatzeke manifestazioa egin zuten herrian. Herenegun udaletxean mozio bat aurkeztu zen eta bertan Mujika pairatzen ari den tortura eta inkomunikazioa salatzea, atzoko manifestazioa Udalak deitzea eta Mujikaren sendiari elkartasuna adieraztea eskatzen ziren. Ondorioz, manifestazioa normaltasunez egin zen Amezketan herrian zehar. Oso jendetsua izan zen, 400 bat lagun inguru bildu baitzen plazan, Irati Jauregiren egoera salatzeke asmoz.

Manifestazioaren bukaeran Lurdes Larretak presoaren amak, alabaren dei bat jaso zuen eta Mu-



Ezohiko bilkuran 60 herritar joan ziren. Irudian, zinegotzi batzuk. HITZA

jika, «oso hunkiturik», eskerrak eman zien bertaratu zirenei, astean zehar eginko lanarengatik. Manifestariak ere hunkituta, animoak emateko hitzak izan zituzten presoarentzat.

Astelehenaz geroztik inkomunikazioan egonda, gaur Irati Mujikaren familiak Madrilgo Soto del Realeko kartzelan presoak ikusi ahal izango du. Irati Mujikari Segi erakunde terroristakoa izatea leporatu zaio.

### Inkomunikazioaz gain, tortura fisiko eta psikologiko gehiago

Irati Mujika amezketarrak egun hauetan zehar eta familiak ezagutzera eman duen moduan, «poltza egin diote lauzpa bost aldiz, emakume bezala lotsarazi egin zuten hainbat mehatxu ingugarri eta sexista jasoz, eta noski, jipoiak ere jaso ditu».

Familiari Irati Mujika ikustea ukatu egin zaio, eta lehen aldiz gaur iluntzean ikusiko dute. Orain arte abokatuak ikusi ahal izan du bi minutuz eta hura izan da Mujikaren deklarazioak eta egoeraz ezagutzera eman duena.

Irati Mujika Iruñean atxilotu zuten joan den astelehenean. Herenegun arte inkomunikatuta egon zen eta Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aurrean deklaratu behar zuen baina «ez zuen egin ez deklarazio polizialik ezta judizialik ere». Alegia, uko egin zion eta ez zuen ezer ere sinatu: «Epailearen aurrean jasandako torturak salatu zituen».

## 22-11 galdu du Abel Barriolak Aimar Olaizolaren aurka

**Pilota** » Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak ari dira jokatzeko; defentsa izugarria erakutsi zuen goizuetarrak Labriten.

**ERREDAKZIOA**

22-11 galdu zuen atzo Abel Barriolak Aimar Olaizolaren aurka. Aisa irabazi zion goizuetarrak leitzarri, Iruñako Labrit pilotalekuan jokaturako partidaren. Lau t'erdiko txapelketako finalerako txartela zegoen jokoan, baina hau etzuen eskuratzerik izan, eskualdekoak.

Partidaren hasieran 6-5 joan ziren, eta norgehiagoka estua izango zela zirudien, baina pixkanaka, Olaizola aurre hartuz joan zen, eta atzean geratu zen Barriola. Aimairen eskubiaren bila aritu zen Abel, hau estutuz, baina defentsa izugarria erakutsi zuen goizuetarrak.

Biek ere pilota oso ezberdinak aukeratu zituzten, Barriolarenak askoz ere motelagoak ziren. Goizuetarrak etekin gehiago atera zuten aukeraturako pilotari, Barriolak bereei baino. Hala, eroso eta konfidantza handiarekin ikusi zen Goizuetako aurrelaria. Barriola ongi aritu bazen ere, Olaizolari gauza guztiak atera zitzaizkion, eta arriskatzen jakin zuen.

Aimarrek duela gutxi izandako lesioaren ostean, partidaren amaieran adierazi zuen, beldurrez aritu zela eskubiarekin. Oraindik ez baitu erabat ongi. Hori dela eta, boleaz sartzerakoan kontuz ibili

zen. Bestalde, sakez egindako tanto bakarra Abelena izan zen 7-15ekoan.

Atzoko partida irabazi bazuen ere, oraindik ez da erabaki Olaizola II.ak finala jokatu duen hala ez. Izan ere, gaur Titinek Martinez de Irujoren aurka galtzen badu, zuzenean igaroko da. Baina aldeantzez gertatzen bada, hurrengotan, Irujoren aurka jokatzeko duenean, 11 tanto egin beharko ditugutxienez.

### Bigarren mailako lau t'ertiko txapelketak

Zegaman Beloso tolosarrak 2. mailako lau t'erdiko txapelketako finalaurrekoan aritu zen Cabrerizoren kontra. Belosok 13-4ko partziala bereganatu zuen, aurkaria baino abiaduraz gehiago emanaz eta gantxoak, dejadak eta sake bultzatuz eginez. Bi pilotariok 214 pilotakada eman zituzten. 22-17 irabazi zion tolosarrak Cabrerizori.

Herenegun «partida ederra» eta Olaetxea lizartzararen eta Mendizabal aldetik errematez josita izan zen Lantziegoko norgehiagokak. Lehenengo zatian Olaetxeak joku azkarra atera zuen kantxara «Mendizabal erraz gailenduz».

Ondoren, fisikoaren nagusitasuna medio, Mendizabal aurkaria zigortzen hasi da pilotakada luzez eta tantoak bukatuz. «Honek itzuleko buelta ekarri zuen». Partidagorria izan zen, 311 pilotakadarekin. Olaetxeak 15 tanto egin zituen bigarren mailako lau t'erdiko BBK txapelketako finalaurrekoa.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxea.** Intzako herriko plazan, 300 urteko etxea garajearrekin bertako eran, sendotuz eraberritu eta estreinatzeakoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, landetxe jartzeko aukera. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakietara: 628 03 07 27, 646 11 14 85 edo 609 21 83 41era.

Bestela, idatzi ondorengo helbidera: [estanga@wanadoo.es](mailto:estanga@wanadoo.es).

■ **Zakurra.** Arratoi zakur arrazako bost txakurkume. Deitu 615 72 56 70ra.

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuek deitu 657 23 0011 era edo 634 91 94 82ra.

**Gizartea** » Alkizan eta Amasan dira jaiak; atzo bi animalia hauekin lotutako ekintzak ziren; oraindik ez dira bukatu festak

**ERREDAKZIOA**

Urteko azken festak ere azken txanpara iritsi dira. San Martinen aitzakian, musika, dantza eta parranda egin dute Amasan nahiz Alkizan.

Amasan, santuaren egunean bertan hasi ziren jaiak, eta hortik aurrera, egunero izan da zer ikusirik eta eginik bertan. Atzokoan, asto lasterketa izan zen goizean. Denera sei zeuden, eta hauen gainean, zaldun bereziak. Mexikarrez jantzitako bat, troglodita, mongoliar beste bat eta txirindularia izan ziren besteak beste. Baina denetan, azkarrena, Garikoitz Etxeberria txirindularia. Dena den, askok, garaipenaren meritua astoari eman zioten, eta ez zaldunari.

Lasterketa bera nahiko alaia izan bazen ere, ahalegin horretan aritu ziren dultzainariak. Amaitu ostean, haurrak igo ziren asto gainera, eta plaza inguruan itzuli baztuk eman zituzten. Festarekin jarraitzeko, eguerdian herri bazkaria izan zen, eta gauean, bertso jaialdia.

# Txerriak eta astoak protagonista izan dira aurtengo San Martin jaietan



Haurrek nahiz helduek hartu zuten parte Alkizako txerri harrapaketan. E.E.

**Oraindik, festak jarraitzen du**  
Atzoko parrandaren ostean, bihar ramunik ez dutenek, ez aspertzeko, herriko artzain-zakur lehiaketatikurera joateko aukera izango dute. Hau Meza nagusiaren ondoren izango da.

Arratsaldean, egunari amaiera emateko, herri kirolak izango dira Amasako gazteen artean. Lehia 18:00etan hasiko da. Baina aste horietako ekitaldiak nahikoa ez badira, datorren asteburuan ere hainbat ekintza izango dira.

**Koplekin hasitakoa...**

Herenegun ekin zieten Alkizan San Martin jaiak, eta atzokoan festa hauen protagonista agertu zen herriari: txerria. Atzo arratsalean, lehendabizi, txerri harrapaketa egin zuten. Bertan, adinguztietako parte-hartzaileak izan ziren, baita etxeko txikiak ere.

Txapelketarekin amaitu ostean, txerrikumeak han zeudenen artean zozketatu zituzten, hurrengo urteko txapelketa bitartean, etxean entrenatzen joateko agian.



Amasan asto karreraren ostean, hauen gainean ibili ziren haurrak. E. EZBIZA

## Auzolan A izan da nagusi lehen jardunaldian

**Ibarra** » Zazpi puntu batu dituzte Ibarako Otermin anaiak lehiatzen ari diren taldekoek; datorren astean bigarren jardunaldia.

**ERREDAKZIOA**

Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketari hasiera eman zitzaion atzo Ibarako Belabieta kiroldegian, herriko Hauspoa elkarteak antolatuta. Zazpi talde lehiatu ziren, eta lehenengo jardunaldian Auzolan A izan zen irabazlea.

Guztira zazpi taldek hartuko dute parte txapelketa honetan, eta tartean Ibarako hiru gazte ariko dira: Lander eta Imanol Otermin, eskarmentu handikoak, batez ere Lander, eta ia hasiberria den beste bat, Mikel Arsuaga. Hirurak Auzolan taldean ari dira.

Atzo jokatu zen lehen jardunaldian Auzolan A izan zen nagusi, biraldi guztiak irabazi zituelarik, beraz, 7 puntu batuko dituzte. Talde honetan Ibarako Otermin anaiak hartzen dute parte. Bestalde, Bizkaiko Sokarri taldea geratu zen bigarren postuan, eta 6 puntu batu ditu; hirugarren Abadiño B izan zen 5 puntu batu dituelarik; laugarren Baiona geratu zen, eta 4 puntu batu dituzte; Abadiño A izan zen

bosgarrena eta hiru puntu batu ditu; Auzolan B seigarren postuan sailkatu zen bi punturekin; bertan ari da parte hartzen Mikel Arsuaga ibartarra; eta azkenik, Asturiasko Seis Conceyos taldea azken postuan geratu zen eta puntu bakarra eskuratu du.

**Lehen sei onenak finalera**

Atzoko 300 kiloko goma gaineko sokatira txapelketako lehen jardunaldia izan zen; bigarrena, berriz, datorren larunbatean izango da, hilaren 22an. Oraindik zehazteko dute antolatzaileek non izango den kanporaketa hau. Bi jardunaldi hauetan puntu gehien batzen dituzten lehen sei taldeak finala jokatuko sailkatuko dira. Hau hilaren 29an jokatuko dute.

**Gogor entrenatzen**

Auzolan A taldean lehiatzen den Lander Otermin ibartarrak gogor ari dira entrenatzen Astigarragako taldean dio: «Hasieran suabe-sua-

**» SAILKAPENA**

1. Auzolan A.
2. Sokarri.
3. Abadiño B.
4. Baiona.
5. Abadiño A.
6. Auzolan B.
7. Seis Conceyos.



Auzolan A taldekoak lehiatzen, atzo, Ibarako Belabieta kiroldegian. I.T.

be hasi ginen, baina orain ia fuerte gabilta». Txapelketan bete bete- an daude sartuta, eta astean hirutan entrenatzen dute, finalera iristea helburu dutelarik. «Finalean ia denak berriz ere zerotik hasiko dira», dio ibartarrak.

Dena den ibartarrak lehiatzen ari diren taldeak aukera garbiak ditu orain finalera iristeko, atzo irabazi eta gero, zazpi puntu batuak baititu eta horrek lasaitasuna ere emango dio taldeari bigarren jardunaldiari begira. Hori, ordea, datorren larunbateko saioan ikusi beharko da.

**UZZURPE IKASTOLA**

★ ★ **BATZARRA** ★ ★

**Eguna:**  
2008 - XI - 26

**Lekua:**  
Ikastola

**Ordua:**  
20:00

- Errektore Kontseiluko Lehendakariaren aurkezpena.
- Akta onartuko duten 2 pertsonen aukeraketa.
- Errektore Kontseilua berritzea
- Ekonomia: Balantzea eta aurrekontua
- 2006 -2011 Estrategi plana. 08-09 Ikasturteko plana.
- Ikasturteko hobekuntzak.
- Batzordeen urteko plana.
- Galdera-eskeak.

Telefonoa: 943 671299; Faxa: 943/675632 email: Ibarra@ikastola.net



13°  
8°

GOIZA	LAINOAK
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil


Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultur Asteak

- **Aduna.** Kultur aretoaren inaugurazioa: 17:00etan filma Kultur Aretoan, 19:00ean merienda eta ondoren, musika emanaldia.
- **Ibarra.** 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era Aretofutboleko txapelketa Belabieta kiroldegian Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukrainiaren artean.
- **Baliarrain.** 11:30ean Hamaiketako; 12:30ean Meza nagusia; 13:15ean Oinarizko Gizarte Zerbitzuak herritarren eskura hitzaldia denentzat Udaleko gizarte langilea den Larraitz Agirrerren eskutik; 14:15ean Jubilatuen bazkaria.
- **Gaztelu.** Udaletxetik Uliko aterpetxerako joan-etorriaren markahobete ahalegina egingo du Ramon Otegi 11:00etan. 1990ean Luis Mari Otegi 43 minutu eta 35 segundotan egin zuen.
- **Amezket.** Kultur Hamabostaldia amaitzeko, Azoka Berezia 10:00etatik aurrera plazan.
- **Berastegi.** 11:00 azoka, I. Ardi Txapelketa, II. Animalia Erakusketak eta Gazta Lehiaketa; 18:00etan talo eta gazta jatea, ardo eta sargardoarekin.
- **Ikaztegieta.** XVIII. Herri Krosa (10 km) 11:00etan. Izen-ematea, 09:00etatik 10:30era bitartean (9 euro).



## Mus txapelketa erraldoia jokatu da

**TOLOSA** ■ Babarrun astearen atarian, apetitua pizten hasteko VIII. Mus Azkarreko Txapelketa jokatu zen atzo Beotibar pilotalekuan. Fronton Kafetegiak antolatutako ekimen honetan, eskualdeko nahiz kanpoko 138 bikotek eman zuten izena. Dena den, txapelketan

128k bakarrik parte hartu zezaketenez, lehendabizi li-gaxka bat jokatu zen, zein 10 bikote kanpoan utzi erabakitzeko. 16:30 aldean hasi zen lehia eta gauera arte luzatu zen. Irabazleek, 1.500 euro poltsikoratu ahal izan zituzten. E. EZEIZA

### Jaiak

- **Amasa.** Meza ondoren artzain txakur lehiaketa izango da ikusgai, eta 18:00etan, berri, herri kirolak izango dira Amasako gazteen artean.
- **Alkiza.** 12:00etan, II. Kamioi Gurpil Lasterketa; 14:00etan herri bazkaria frontoian; 17:30ean, toka txapelketa.

### Ikuskizunak

- **Tolosa.** Sua ikuskizunaren estreinaldia, Ibarako Alurr dantza taldearen eskutik, Leidor aretoan 19:30etik aurrera.

### Deialdiak

- **Amezket.** Hirigintza obretarako batzordea eta kontuen batzorde berezia, bihar, 20:30ean, Balioanitzeko gelan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
  - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
  - **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak

### Zorionak!

#### Garikoitz Zubeldia (Lizartza).

Bere anaia, guraso, aiton-amonak, lehengusu eta familia guztiaren partetik.



### Zorionak aitona!

**Andres Gaztañaga.** Gaur 91 urte. Zorionak eta ondo pasa gaurko eguna!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa